

ZIRKULAR OROKORRA

2009/2010

Guraso agurgarriak:

Ohar honen bidez, 2009/10 ikasturtearen hasieran, gure agurrik beroena luzatzeaz gain, beherago datozen gaien berri eman nahi dizuegu.

1. Eskola egutegia.
2. Ikasleriaren ordutegia
3. Jangela
4. Autobusa
5. Haurtzaindegia.
6. Familiekiko bilerak eta tutoretzak
7. Ikasleen ausentziak
8. Irteerak
9. Igeriketa datak
10. Helbide edo telefono aldaketak
11. Medikuz zerbitzua
12. Ikasturte guztirako ikasleentzako materiala.
13. Eskolako helbide eta telefono zenbakiak

1.- ESKOLA EGUTEGIA

2009/2010 ikasturtean zehar, jai eta opor egunak honako hauek izango dira:

IRAILAREN 8tik – 18ra (biak barne) goizez

URRIAK 12 (El Pilar)

ABENDUAREN 7 eta 8 (Inmaculada-Zubia)

GABONETAKO OPORRAK abenduaren 22tik, urtarrilaren 6 arte (biak barne).

URTARRILAK 20 (Donostiako Jaia)

OTSAILAK 15 (inauterietako astelehena)

MARTXOAK 19 (S. José)

ASTE SANTUKO OPORRAK, martxoaren 29tik, apirilaren 11ra arte (biak barne).

EKAINAREN 9tik – 22ra (biak barne) goizez

EKAINAREN 23 (Kurtso bukaerako jai) goizeko eta arratsaldeko jarduna

UDAKO OPORRAK ekainaren 24tik aurrera.

2.- IKASLERIAREN ORDUTEGIA

Irailean :

LEHEN HEZKUNTZA: Irailaren 8tik – 18ra , goizez 9:00etatik 13:00etara.
Jangelako ikasleak 14:00etara arte.

HAUR HEZKUNTZA: Irailaren 8tik – 18ra , goizez 9:00etatik 12:00etara.
Jangelako ikasleak 14:00etara arte.

Ikasturtean zehar:

IKASLE GUZTIAK: Irailaren 21etik aurrera, goizez 9:00etatik 12:00etara eta arratsaldez 15:00etatik 17:00etara.

2.010ko ekainean:

LEHEN HEZKUNTZA: Ekainaren 9tik aurrera, goizez 9:00etatik 13:00etara.
Jangelako ikasleak 14:00etara arte.

HAUR HEZKUNTZA: Ekainaren 9tik aurrera, goizez 9:00etatik 12:00etara.
Jangelako ikasleak 14:00etara arte.

BI URTEKO IKASLEEK AUKERA HAUEK DITUZTE:

Goizez bakarrik: 9:00etatik 12:00etara.

Goizez bakarrik jangelan geratuz: 9:00etatik 15:00etara

Jardunaldi osoa: (ikastetxeko ordutegia) 9:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.

3- JANGELA

Irailaren 9an hasiko da. Jangelako ordutegia 12:00etatik 14:00etara da. Prezioei dagokienez:

IKASLE MOTA	EGUNEKO
Ohiko ikaslea (2 urteko gela)	3,60 €
Ohikoa ez den ikaslea (2 urteko gela)	4,20 €
Garraio eskubidea duten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak.	2,50 €
Haur eta Lehen Hezkuntzako ohiko ikaslea.	3,60 €
Haur eta Lehen Hezkuntzako ohiko ez den ikaslea.	4,20 €

(*) “Garraio eskubidea duten bazkalkideak” Ikastetxetik 2 kilometrotara baino urrunago bizi diren ikasleak dira.

Noizbehinkako bazkalkideak jangela erabili aurretik bezperan (goizez) abisatu beharko diote jangelako arduradunari.

Ohizko bazkalkideei oso kasu berezietan itzuliko zaizkie jangelako kuotak, eta horretarako jangelara faltatu aurretik idatziz abisatu beharko diote arduradunari. Hezkuntza Sailaren aldetik bekak jasotzen dituztenei ez zaizkie kuotak itzuliko inolako kasutan.

Ohizko bazkalkideek helbideratze bankariaren bitartez ordainduko dute. Noizbehinkakoek, ordea, jangelako kontu korrontean egingo dute diru sarrerak: (**KUTXA: 2101 0018 01 0010768240**)

4- ESKOLA AUTOBUSA

Irailak 08, 13:00etan aterako da (jangela-zerbitzua ez dagoelako). Irailaren 9tik 19ra arte, jantokiko zerbitzua dela eta, autobusa eguerdiko 14:00etan aterako da Ikastetxetik.

Aldiz, irailaren 21etik aurrera eta egun osoko klaseak izango direnez, autobusa arratsaldeko 17:00etan aterako da Ikastetxetik.

Autobusaren ibilbide eta geltokiak:

8:10 Duque de Mandas, 39 (Egia)
8:25 Virgen del Pilar (Martutene)
8:30 Martuteneko gasolindegia
8:32 Martuteneko geralekua (RENFE)
8:37 Loiolako ihesbidea, (autobus geltokia)
8:40 Bartzelonako Hiribidea, 23 (Loiolako Erriberak)
8:47 Irun Enparantza (ARCCO)

17:10 Irun Enparantza (ARCCO)
17:15 Bartzelonako Hiribidea, 23 (Loiolako Erriberak)
17:20 Loiolako ihesbidea, (autobus geltokia)
17:25 Martuteneko geralekua (RENFE)
17:30 Martuteneko gasolindegia
17:32 Virgen del Pilar (Martutene)
17:45 Duque de Mandas, 39 (Egia)

5 -HAURTZAINDEGIA.

Guraso Elkarteak eskainitako Haurtzaindegi zerbitzuari dagokionez, beti bezala, goizeko 8:00etatik – 9:00etara izango da. Irailaren 8an hasiko da. Prezioak, oraingoz, finkaturik ez dauden arren, gutxi gora-behera horrela izango dira: eguneroko erabiltzaileentzat 25,00 € hileko, eta noizbehinkako erabiltzaileentzat eguneko 3,00 €.

6 - FAMILIEKIKO BILERAK ETA TUTORETZAK

Bilera Orokorrak: lehenengo hiruhileko honetan ospatuko diren gelako bilera orokorren datak aurki jakinaraziko dizkizuegu.

Elkarrizketa Pertsonalak: Ohitura dugun bezala, gurasoek elkarrizketaren bat izan nahi dutenean, irakasleekin, aldez aurretik zita finkatu beharko dute (telefono dei bat nahikoa da). Beren aldetik, irakasleek, beharrezkotzat jotzen dutenean, eta araututako elkarrizketaz gain, edozein momentutan jar daitezke harremanetan gurasoekin bilera pertsonal bat egiteko.

Dena dela, araututa dagoenez, ikasturtean behin gutxienez, tutore eta gurasoen arteko buruz-buruko elkarrizketa pertsonal bat egingo da

7 – IKASLERIAREN AUSENTZIAK ETA PUNTUALTASUNA

Edozein arrazoigatik zuen seme-alabek etortzerik ez badute, irakasle edo tutorea jakinaren gainean jartzea (zergatiak azalduz) beharrezkoa da.

Beharrezkoa den puntualtasunez aritzeko, eta geletan etenaldiak edo eragozpenak sortu ez daitezen; goizeko eta arratsaldeko lehenengo saioak hasita daudenean, justifikaziorik gabe 10 minutu baino gehiago berandutuko diren L. Hezkuntzako ikasleak, lehenengo saioan, ezingo dira gelan sartu.

Era berean, 4/5 urte eta 1./2. sartu eta irteteko orduetan, **jangelako eraikineko pasillora ez sartzea eskatzen zaie gurasoei**. Pasillo horren estuasuna dela-eta, aipatutako ordu horietan sartuz gero, ikasleriaren igarotze eta ikasleriaren lana dezente eragozten da.

8- IRTEERAK

Kurtsoan zehar, egun bateko edo gehiagoko irteerak antolatuko dira. Baldintzak une egokian komunikatuko dizkizuegu. Hezkuntza Sailaren instrukzioak jarraituz, gurasoen baimena idatzia eskatuko da.

9 - IGERIKETA DATAK

Bigarren zikloko ikasleek (**3. eta 4. mailakoek**) Pako Yoldi Igerilekuetan (Anoetan), arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara, egingo dute ikastaroa. Ikastaroa kurtso osoan zehar garatuko da, datak beheago adierazten direnak izanez:

	Azaroa	Abendua	Urtarrilla	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza
Osteguna	26	3-10-17	14-21-28	4-11-18-25	4-11-18-25	15-22-29	6-13

Lehen zikloko ikasleei (**1. eta 2. mailakoei**) dagokienez, igeriketa-ikastaroa maiatzaren 24tik ekainaren 18ra bitartean izango da; hau da, hagei eskola-egun jarraituetan zehar. Ordutegia, goizeko 11:00etatik eguerdiko 12:00etara; eta lekua, Pako Yoldi Igerilekuak (Anoetan).

10 – HELBIDE EDO TELEFONO ALDAKETAK

Edozein arrazoigatik Ikastetxeak familiari buruzko dituen datuak aldatzen badira (helbide-telefono aldaketa, neba-arreben kopurua...), guztion mesederako, idazkaritzan horren berri ematea eskertuko genizueke.

11- MEDIKU ZERBITZUA

Udalak ikasturte bakoitzean zehar erregulariki Ikastetxera etortzen den mediku zerbitzu bat dauka. Zerbitzuko sendagilea Arratibel pediatria da eta, araututako txertaketaz gain, behaketa hauek egiten ditu:

-4 urtetan: Inpedantziometria eta ikusmen zolitasuna

-6 urtetan (1. mailan): azterketa mediko orokorra eta Difteria, Tetanoa, Kukurrukuestul azelularraren kontrako txertoa.

-10 urtetan (5. mailan): azterketa mediko orokorra

Txertaketa gurasoen onarpen eta behar den baimenarekin egin ohi da. Medikuz zerbitzuari familiekin harremanetan jartzea beharrezkoa iruditzen bazaio, zuzenean egiten du interesatuekin.

Aldi berean, Osakidetzak haurrentzat planteatzen dituen kanpainak koordinatzen dituzte. Ikastetxean osasunari buruzko premia sortzen denean Arratibel medikuarengana jotzen dugu beti.

Zorrien gaiari helduz, Ikastetxeak aldiro bidaltzen ditu zirkularrak epidemia dagoela adieraziz. Egoera honetan medikuak emandako aholkuak eransten dizkizuegu. Dena den, azpimarratu behar dugu, gaur egun, izurrite hau iraunkorra den gaitz horietako bat dela, beraz, familiek etengabe behatu eta jardun behar duzue ikasturte osoan zehar aipatutako izurritea ekidin ahal izateko.

Bukatzeko, zuen laguntza eskatu ere eskolako gaixotasunik arruntenak (barizela, konjuntibitisa, zorriak..) kontrolpean eduki ahal izateko. Honetarako, umeak sukarrak jota egoten direnean, eskolara ez ekartzeko eskatzen dizuegu, gutxienez, sukarra desagertu zenetik 24ordu pasa arte.

12- IKASTURTE GUZTIRAKO IKASLEENTZAKO MATERIALA

Bai eskolako zenbait material (higiene produktuak, liburuak, papera, kartoi mehea, plastikarako materiala..), eta bai ikasturtean zehar egingo diren zenbait irteera ordaintzeko

ere, ikasleei kuota bat kobratu beharrea aurkitzen gara. Ikasturte honetarako kuota horrela geldituko da:

MAILA	Ikastetxean anai-arrebarik ez dutenak	Ikastetxean anai-arreba gehiago dutenak
2 urte	110,00 €	70,00 €
3, 4, 5 urte	45,00 €	35,00 €
L. Hezkuntza	42,00 €	32,00 €

Diru sarrerak, **beti ikaslearen izenean**, Ikastetxeak duen Kutxako kontu korrante honetan egin behar dira:

21010018080000859058

Familiaren bat egoera ekonomiko zail bat aurkituko balitz, Ikastetxeko idazkaritzan horren berri eman ondoren, saiatuko litzateke erraztasunak ematen familia horri.

13- GURASO ELKARTEKO KUOTA

Guraso Elkartearen lana ezinbestekoa da eskolaren zerbitzuak hobetzeko eta ikasleentzako ekintzak antolatzeko (haurtzaindegi zerbitzua, eskolaz kanpoko ekintzak, eskola kirola, ospakizunak...). Erakunde honi sostengu ekonomikoa emateko, eskolako familia guztiek, ikasturteko 30,00 € kuota bat ordaindu beharko dute. Normalean, kuota hori, helbideratze bankariaren bitartez egiten da.

14- ESKOLAKO HELBIDEA

Haur Hezkuntza ata Jangela:

Katalina de Erauso 8, telefonoa: 943 464359

Lehen Hezkuntza, Zuzendaritza-Idazkaritza:

Barkaiztegi 9 atzean, telefonoa/faxa: 943 469825

E-mail: 012186@hezkuntza.net

WEB: www.katalinerauso.org

Gure agurrik beroena guztiontzat

Donostian, 2009ko iraila